



www.lab.eus
/langileen-alde-hemen-erabaki/

✓ INBERTSIO PUBLIKOA HANDITU ✓ BALIABIDEZ HORNITU ✓ AKORDIO ARAUTZAILEA BERRITU

- > Lan zamak arindu
- > Lizentzia eta baimenak hobetu
- > Gazteberritze neurriak adostu
- > Ordezkoen araudia berritu
- > Udako kobraketa bermatu
- > Lanbide Heziketako berezitasunak arautu (ordutegiak, praktikaldiak...)
- > EPE eredu berritu
- > Behin-behinekotasuna %5era jaitsi
- > Lan osasuna bermatu
- > Administrazioarekin harreman zuzena



Irakasleak EAE

LANGILEEN ALDE

hezkuntza publikoa indartu

hemen erabaki

LAB¹

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

LANGILEEN ALDE

lan eta bizitza duinak

hemen erabaki

Euskal langileen lan eta bizi baldintzak duintzeko borroka indartzera goaz ikasturte honetan LABetik. Prekarietatea borrokatzeko neurri zehatzak planteatu ditugu horretarako: 1.600 euroko gutxieneko soldata langile guztientzat, 30 orduko lanaldia eta zerbitzu publikoak indartzea. Neurri egingarriak dira, horretarako borondaterik bada. Horregatik, Jaurlearitzari eskaera zuzena egin diogu, enplegu publikoa sortu eta dagoena egonkortu dezan, baliabideak handitzeko, ratioak hobetzeko eta pribatizatutako zerbitzuak lehengoratzeko, besteak beste.

Arlo publikoan lehentasunezko eremuen artean dugu hezkuntza. Euskal Eskola Publiko Komunitarioa edota Euskal Herriko hezkuntza-sistema burujabea - sare publiko bakar eta deszentralizatua- eraikitzeko bidean eskumen gehiago behar dugu, euskararen normalizazioaren aldeko lege eta araudi berriak, eta eskola publikoa sistemaren ardatz bilakatzea. Horren alde lanean ari gara irakasleok ere, asko dugu esan eta aldarrikatzeko.

HEZKUNTZA PUBLIKOA INDARTU!

Kalitatezko hezkuntza publikoa izateko inbertsio publikoa handitu, ikastetxeak baliabidez hornitu eta langileon lan baldintzak hobetu behar ditu Hezkuntza Sailak. LABek ondorengo neurriak hartzea proposatzen du:

> AKORDIO ARAUTZAILE BERRIA

2010az geroztik, irakasleon lan baldintzak arautzen dituen akordio arautzailea berritza.

Horretarako, ezinbestekoa da ondorengo gaietan hobekuntzak jasotzea:

> Lan zamak arintzea ordu lektiboak zein lan burokratikoak murriztuz. Horrez gain, formakuntza lanaldiaren barruan eta ikastetxearen beharretara egokitu behar da.

> **Lizentziak eta baimenak hobetzea** -zaintzaren ikuspegitik-, *binkulograma txertatuz, edoskitze egunak gehituz eta guraso bakarrei neurri gehigarriak aplikatuz, besteak beste.

> **Gazteberritze neurriak** txertatzea murrizketak erretirora bitarte zabalduz eta horiek metatzeko aukera eskainiz.

> **Ordezkoen lan baldintzak** hobetuko dituen araudi berri bat adostea, udako kobraketa berreskuratuz edota karrerako funtzionarioek dituzten baldintzekin berdinduz.

> **Lanbide Heziketako** irakasle teknikoei irtenbidea ematea, kidegoa euskalduntzea eta lege berriaren aplikazioa arautu eta adostea.

> **Enplegu publikoaren eskaintza:** behin-behinekotasuna %5aren azpitik kokatzea egiturazko plazetan, EPE eredu berri bat negoziatzea eta deialdia hiru urteko zikloetan egitea.

> **Lan osasuna bermatzea:** mediku azterketak bi urtean behin izatea eta arrisku psikosozialen eta lanpostuen azterketa egitea. Horrez gain, langileek dituzten ezintasun edo ezgaitasunen arabera, postuen egokitzapenak bermatzea.

> **Prozesu administratiboetan,** ikasturte hasierako esleipenaren (IKHA / COCU) eta ikasturte hasierako Ordezlaguneko data eta baliabide informatiko gokiak eskaintzea, lekualdatze lehiaketan "benetako" plazak kontuan hartuz.

> **Administrazioarekiko harreman** presentziala eta telefonikoa berreskuratzea.

> 30 ORDUKO LAN ASTE ERREALA

Zaintza lanak kolektibizatzea; enplegua banatzea; lan eta bizi baldintzak hobetzea; eta, lan osasuna zaintzeko helburuz, jardunaldia murriztea.

> HEMEN ERABAKI

Madriilen ezartzen diren mugak (soldata, kontratazio kopurua, erreposizio tasa...) gainditu eta hemen bertan erabakitzea. Galdutako %20 ko erosahalmena berreskuratzea, birjartze-tasaren mugak gainditzea eta beharrezkoak diren lanpostuak sortu eta egonkortzea.

*Binkulograma: familia nuklear heteropatriarkalaren logika gainditu eta ahaidetasun harremana duten kideez gain, bestelako binkulazio emozionala edota soziala izan dezaketen pertsonak zaindu ahal izateko zaintza-neurria.





LAB¹

**EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA**